



Elorrioko udala

IRAGARKIA

Elorrioko Udalak 2025eko hutsik dauden Elorrioko merkatal lokaletan jarduera ekonomikoa abian jartzen dituzten ekintzaileentzat, edo lehendik dauden jarraipena ahalbidetzen dutenentzat dirulaguntza deialdia onartzea (2025-00063 espedientea)

Alkateak, 2025 € ko otsailaren 28an 108 zenbakiko dekretuz, 2025ko **hutsik dauden Elorrioko merkatal lokaletan jarduera ekonomikoa abian jartzen dituzten ekintzaileentzat, edo lehendik dauden jarraipena ahalbidetzen dutenentzat** udalaren dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrio, 2025eko otsailaren 28a

Julene Lazkano Zenitagoia

Alkatea



OINARRI ESPEZIFIKOAK ETA DEIALDIA / BASES ESPECÍFICAS Y CONVOCATORIA

Hutsik dauden Elorrioko merkatal lokaletan jarduera ekonomikoa abian jartzen dituzten ekintzaileentzat, edo lehendik dauden jarraipena ahalbidetzen dutenentzat

ZIOEN AZALPENA

Une hauetan bizi dugun globalizazioaren, internet bidezko eta azalera handien salmenta garaian, saltoki txikia, inoiz baino zaurgarriagoa da. Elorrio ez da salbuespen bat, eta azken urteotan hainbat lokal, negozio eta ostalaritzako establezimendu ixten ikusi dugu.

Jarduera hauek berreskuratzeko eta indartzeko funtsezkoa da laguntza emotea generazio barriei belaunaldien arteko erreleboa har dezaten, ekintzaileei lagunduz hutsik dauden merkataritzako lokaletan jarduera barriak instalatzen edo lehendik daudenak mantentzeko, honela, dagoen jardueraren belaunaldien arteko erreleboa bermatuz.

Beraz, asmoa da Elorrioko merkataritzaren biziberrikuntza bultzatzea eta sektore honetako funtzio ekonomikoa berreskuratzea jarduera eta inizatiba barriak jarri edo lehendik daudenak mantenduz, merkatal lokalen kasuan, erabiltzen ez diren azalerak mobilizatuz.

Elorrioko Udalak, 2025 urterako onartu dituen aurrekontuetan deialdi honen barruan aurkeztu diren egitasmoei aurre egiteko dirulaguntzarako aurrekontu-aplikazio bat sartu du.

1.- Xedea.

Oinarri hauen xedea da, Elorrioko merkatal lokaleetako batean jarduera ekonomiko bat abian jarri duen edo jarri gura duen ekintzaile orok 2025eko laguntza programa honetan sartu ahal izateko bete behar dituen baldintzak eta betebeharrak zehaztea eta arautzea.

Elorriko merkataritza jarduera orokorrean indartzeko erreferentzia izango dira Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia (PERCO) eta baita Hirigune historikoko kaleen garrantzia. Hori horrela, lehentasuna izango dute gune historikoko lokalek, eta aldi berean kontuan hartuko dira auzoetan eta merkataritza dentsitate txikiko inguruetako oinarritzako premiak estaliko dituzten proiektuak.

2. . Onuradunak

Deialdia Elorrioko merkataritza-lokal hutsen batean jarduera ekonomiko bat hasteko interesa duten pertsona fisiko edo juridiko guztiei zuzenduta dago, edo dagoeneko existitzen diren saltokiei jarraipena emateko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoei, belaunaldien arteko erreleboaren bidez, interesdunaren bizilekua edozein dela ere.

Dirulaguntzaren titularrak nahitaez bideratu beharko du lokala aurkeztutako proiektuan adierazitako jarduerara, eta ezingo du lokala beste jarduera batzuetarako erabili.



Dirulaguntzaren xede den saltokiak gutxienez urtebete eman beharko du jardunean, irekitzeko lizentzia lortzen denetik edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.

Jarduera hasteko eta garatzeko beharrezkoak diren administrazio-lizentziak eta -baimenak izan beharko ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Lokala erabiltzeko eskubidea pertsonala eta besterenezina da, eta haren ustiapena esleipendunari dagokio, eta ezin da beste inoren esku utzi.

Laguntza horiengatik dirulaguntza bat jaso duen pertsona fisiko edo juridiko batek beste eskaera bat egin ahal izateko, gutxienez urtebete igaro behar da arrazoi beragatik laguntza ematen denetik, eta proiektu berri bat izan behar da lehen laguntza ematen den lokala ez den beste merkataritza-lokal batean.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzarako Legearen testuategina onartzen duenak, 2.4 artikuluan xedatzen du laguntzen edo dirulaguntzen onuradun diren erakunde pribatuek 3. artikulua (printzipio orokorrak), 17. artikulua (estatistikak eta azterlanak) eta 19.4 artikulua (hizkera inklusiboa eta ez-sexista) bete behar dituztela, udalaren eta onuradunaren arteko harremanari dagokion denboran eta gaian.

Honako hauek ezin izango dira laguntza hauen onuradun izan:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeraren batean dauden pertsonak, dirulaguntzen onuradun izateko.**
- Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta daudenak.**
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.**
- Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.2 artikuluan aurreikusitako arau-hausteak egiteagatik zehatu egin dira, eta ez dira enplegu-programak aplikatzearen ondoriozko onurak eskuratzetik salbuetsi.**
- Elorriko udalerrian establezimenduren bat izatea eta jarduera-lizentziarik edo erantzukizunpeko adierazpenik ez izatea.**
- Kapital publikoko erakundeak eta administrazio publikoak, elkarteak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk.**
- Administrazio-, lan- edo zigor-bidean berdintasunerako eskubidea urratzeagatik eta sexuagatiko bereizkeria egiteagatik zehapen irmoa jasotzen dutenak.**



- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak.

- Onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik diskriminatzen dutenak.

3.-Diruz lagunduko den aldia

Onuradunak jarduera-lizentzia eskaera, edo kasua bada, jardueraren titularren aldaketa 2025ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 1a bitartean aurkeztu behar izan du Elorrioko Udalean.

Edozein kasutan, dirulaguntza onartu ahal izateko establezimenduak zabalik egon behar du, eta beharrezkoak diren hirigintza-lizentziak eduki behar ditu, aurrean aipatutako epean.

4. Aurrekontu kreditua

Finantzaketa 2025.4310.481.19 aurrekontu-aplikaziotik egingo da.

Kreditu erabilgarria 15.000,00 eurokoa da.

Eman beharreko laguntzen guztizko zenbatekoa ez da adierazitako kontsignazioa baino handiagoa izango, eta eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoak aurrekontu-kreditua gainditzen badu, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki eta ekitatez hainbanatuko da eskatzaileen artean. Hala ere, Elorrioko Udalak aurrekontu-kreditua eguneratu eta aurrekontu-aldaketak egin ahal izango ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz laguntzen hasierako zuzkidura handitu nahi izanez gero, ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea, eraginkorra izan dadin, eta baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskabideei laguntzak emateko erabiliko da.

5. Instalatu ahal diren jarduera ekonomikoak

Instalatu ahal diren jarduerak honako hauekin lotutakoak izango dira:

- Txikizkako merkataritza.
- Ostalaritza eta jatetxeak.
- Pertsonen zuzendutako zerbitzu-enpresak.
- Hutsik dauden merkatal lokaletan zabaltzen den beste edozein eta Elorrioko merkataritzaren susperketarako interesa duen koherentea dena.

Lehentasuna honako proiektu hauek izango dute:

- Jendearentzat zabalik dauden Elorrioko hirigune historikoan kokatutako establezimenduak.
- Gaur egun elorriarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotuta daudenak.
- Itxi behar diren edo establezimendu barria zabaltzeko aurreko bi urteetan itxi diren jardueren jarraipena direnak.



6. Dirulaguntzak onartzea Irizpideak eta zenbatekoa

Udalak dirulaguntzak onartuko ditu honako irizpide hauek baloratu ondoren:

- Establezimendua Hirigune Historikoko merkatal lokal batean kokatuta egotea.
- Berezitasuna: udalerrian ez dauden jarduera ekonomikoak. Irizpide hau baita ezarriko da udalerrian bakarrik izan diren aurretiaz egindako jarduera ekonomikoen kasuan, jarraipena belaunaldien arteko erreleboa edo jarraipena planteatzen denean.
-
- Jarduera zabaltzeko aurreikusitako edo egindako inbertsioa.
-
- Enplegu egonkorra sortzea.
-
- Belaunaldien arteko erreleboa, hau da, denda edo zerbitzu tradizionalaren jardueraren jarraipena baloratuko da, erretiroa edo jarduera bertan behera lagatzeagatik. Jardueraren jarraipena izango da establezimenduak bere jarduera azken bost urteetan garatu duenean.

Gehienezko dirulaguntza 4.000,00 € izango da, eta zenbateko hau kalkulatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

- Establezimendua Hirigune Historikoko merkatal lokal batean kokatuta egotea. 500,00€
- Jardueraren berezitasuna: 1.000,00€
- Jarduera zabaltzeko aurreikusitako edo egindako inbertsioa: 100,00 € inbertsioaren 1000,00 € bakoitzeko, gehinez 900,00 €. Aurreikusitako inbertsioaren zenbatekoa jarduera-lizentzia eskaerari edo titularren aldaketa egiteko erantsitako dokumentazioan agertu beharko da.
- Enplegua sortzea: jarduerarako kontratu mugagabe bidez kontratatutako pertsona bakoitzeko 300,00 €, gehienez, 600,00 €.
-
- Belaunaldien arteko erreleboa: 1000,00€

Eskatzaile bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbateko guztia, lehen aipatutako mugarekin, aipatutako irizpideak ezarri ondoren kopuruen batuketa egin ondoren ateratzen dena izango da.



7. Diruz lagunduko diren gastuak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jardueraren bizitzaren lehen urtean zehar sortutako gastuak finantzatzeko izango dira. Honako kontzeptu hauek diruz lagunduko dira. Diruzlagundu ahal diren gastuak 2025eko martxoaren 15a baino arinago justifikatu egin behar dira. Horrela ez bada egiten dirulaguntza bueltatzeko prozedura hasiko da.

- - Negozio-lokalaren alokairuari dagozkion gastuak, betiere, lokala alokairuan emon duenarekin 2. mailara arteko odol- edo ezkontza-ahaidetasunezko harremana ez badago, edo errentan emon duenarekin jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide-partaide ez bada. Merkataritza-lokalek alokairuan hartuta egon beharko dute alokairu-kontratu bidez eta dagozkion Jarduera Hasteko Erantzukizunpeko Adierazpena edo Irekitze Lizentzia eduki beharko dute.
- Jarduera garatzeko erositako higiezin finantzatzeko hipoteka-kreditu kuotei, titularraren izenean egon beharko dutenak, dagozkien gastuak. Kuota horiek dirulaguntzaren aldikoak izango dira, ez beste sasoi batekoak eta amortizatutako kapitala eta interesak agertuko dira.
- Lokala egokitze gastuak.
- Jarduera garatzen den lokalarekin lotutako hornidura-gastuak: energia elektrikoa, gasa ura eta komunikazioak (Internet, telefonoa, eta abar).
- "Autonomoen Erregimen Berezian" jardueraren titularrak, pertsona fisikoen kasuan, edo Gizarte Segurantzako kuotak, pertsona juridikoen kasuan, ordaindutako kuotei dagozkien gastuak, guztiak dirulaguntzaren xede den aldian.

8.. Hizkuntza irizpideak Euskara

Dirulaguntza jasotzen duen jarduera orok honako betebeharreko hauek bete beharko ditu euskararekin lotuta:

- Negozioaren errotulazioan euskara sartzea.
-
- Establezimenduaren publizitatean euskara sartzea:

.- Idatzizko dokumentazioan: kartelak, iragarkiak, diptikoak edo beste edozein motatako publikazio, gutxienik euskaraz argitaratuko da; euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen den kasuan, euskararen neurria nabarmendu egingo da eta baita kokapena erabilitako euskarrian.



.- Komunikazio-bideak eta sare sozialak: mezuak eta iragarkiak euskaraz egingo dira, edo bi hizkuntzetan.

9.. Prozedura

- Dirulaguntzen instrukzio organoa osatuko

dutenen arteko genero parekidetasuna egongo da. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kideetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek %40ko ordezkartza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, berriz, bi sexuek ordezkartza dutenean.

Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz

Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak Lehenengo Kapituluaren 2. puntuan arautzen duenari jarraiki, salbuespen gisa dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango dira interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten dirulaguntzak, edo bere deialdi publikoa eragozten duen beste edozein arrazoi egiaztatzen dutenak. Dirulaguntza hau arautzeko era ofizioz egingo da.

Eskaera aurkeztu ondoren, arloko zerbitzu teknikoek aztertu eta 6. artikuluan jasotako irizpideen arabera balorazio bat egingo dute dirulaguntzaren zenbatekoa finkatuz. Balorazio hori Berdintasuna eta Politika Sozialak Informazio Batzordeak aztertuko du eta diktaminatu ondoren Tokiko Gobernu Batzarrera bialduko du, honek erabakia hartzeko.

Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea ez da sei hilabete baino gehiago luzatuko. Gehienezko epe hau igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik barik, interesdunek ulertu beharko dute eskaera, administrazio isilbidez, atzera bota dela. Erabakiaren gaineko jakinarazpena interesdunei urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikulua eta hurrengoek aurreikusten dutena jarraituz egingo da. Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emongo dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertze errekurtsoa tartekatze aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatze Bilboko dagokion auzitegian. Hori guzti hori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

10. Izapidearen ardura izango duen administrazio-unitatea

Eskaerak Politika Sozialeko administrazio-unitateak izapidetuko ditu.

11. Epea eta eskabide-orriak aurkeztea

Eskabide-orriak, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 2025eko abenduaren 1ra bitartean aurkeztu ahal izango dira.



Eskabide-orriak Elorrioko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztuko dira, edo baita abenduaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, onartzen dituen eretatik edozeinetan. Eskaera egiteak, interesdunek oinarrien edukia onartzen dutela esan gurako du.

Eskaera bakarra baino ezingo da aurkeztu merkatal lokal bakoitzeko.

12. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskabide-orriari erantsi beharko zaizkio:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia. IFKaren fotokopia, pertsona juridikoen kasuan.
- Eskabide-orria interesdunak edo eskatzailearen ordezkariak sinatuta.
- Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak. Ordezkaritza egiaztatu ahal izango da zuzenbidean baliozkoa den edozein bidez, haren existentzia modu fidagarrian jasota utziz gero.
- Zerga betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzaz zorrik ez duela egiaztatzen duten agiriak.
-
- Jarduera-lizentziaren edo titularra aldatzeko Elorrioko udaletxean aurkeztutako eskaeraren eskabide-orriaren fotokopia.
- Lokalaren alokairuaren kasuan, alokairu-kontratuaren kopia ekintzaileak eta lokalaren jabeak sinatuta.
- Lokala erosi den kasuan, salerosketa-eskrituraren fotokopia.
- Transferentzia-kontratuaren fotokopia, dagoen kasuan.
- Dirulaguntzaren xede den ekitaldi ekonomikorako sinatutako lan kontratuen fotokopia. Kontratuak behar moduan zigilatuta egongo dira eta mugagabeak direla jaso beharko dute.
- Hirugarrenen alta behar bezala beteta. Agiri hau paperean edo online egin daiteke.

<https://www.elorrio.eus/eu-ES/lzapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=295cb091-c85c-4be0-b4f4-c485119cdb35>

Jardueraren gainerako memoria labur bat honako puntu hauek jasoko direnean:

Jardueraren edo negozio-ideiaren deskribapen txiki bat. Negozio barria den edo lehendik dagoen baten jarraipena den.

— **Jardueraren kokapena.**

Proiektua asetzen duen merkatuaren premiaren deskribapena. Jardueraren edo negozio-aukeraren onuren deskribapena.

Jardueraren, produktuaren edo zerbitzuaren hartzaile izan daitezkeen bezeroen xehetasuna.



Jarduera zabaltzeko aurreikusitako edo egindako inbertsioaren xehetasuna.

Dirulaguntza emon eta jarduera hasi ondoren, egitasmoan jasotakoa ez betetzea nahiko arrazoi izango da dirulaguntzaren etenerako

13. Dirulaguntzak zuritzeko era eta epeak

Zuriketa ordainagiri eta gainerako dokumentu frogagarri baliokideen fotokopia bitartez egingo dira. Betiere, dokumentuok diruz lagungu behar diren kontzeptuen lege eta merkataritza alorrean baliozkoak edo administratiboki eraginkorrak izan behar dute.

Zuriketa egiteko epea 2026ko martxoaren 31n itxiko da.

14 Dirulaguntzak ordaintzea

Erabakia hartu ondoren eta birformulazioetarako epea igarotakoan Elorrioko Udalak onartutako dirulaguntzaren % 80a ordainduko die onuiradunei. Gainerako % 20a aurreko artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkezten denean.

15. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein entitate edo erakundek emondako beste dirulaguntza batzuekin.

16. Oinarriak ez betetzea. Dirulaguntza deuseztatzeko arrazoiak

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako baldintzetako edozein betetzen ez badu dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu eta dagozkion beranduzko interesak eskatuko zaizkio.

Aipatutako ez betetze orokorre gain, jarraian zehazten diren kasu zehatzetan modu bera jarraituko da:

- Lokala ixtea edo jarduera uztea, zabaldu eta urtebete baino lehenago.**
- Jarduera aldatzea Udalaren aurretiazko baimenik barik.**

17.-Elkarreragingarritasuna

Elorrioko Udalak dokumentuak eta informazioa eskatu ahal izango dizkie beste administrazio batzuei, elkarreragingarritasunaren esparruan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikulua arabera.



Horren helburua da eskatutako dirulaguntzen kudeaketa erraztea eta administrazio-izapideen eraginkortasuna bermatzea.

Udal honek beste administrazio batzuetan norbere datuak eta dokumentuak kontsulta ez ditzan eskubidea du eskatzaileak. Eskubide horretaz baliatzea erabakitzen badu, behar bezala arrazoitutako idatzia egin beharko du, eta zergatia adierazi. Behar den moduan arrazoitu gabeko erabateko ezetzik ez da onartuko.

Datuak eskatzearen aurka egiteko idatzia dirulaguntzak eskatzeko epean aurkeztu behar du.

Oposiziorako idatzian honako datu hauek zehaztu behar ditu behintzat, eskatzaileak:

- Eskatzailearen datuak.
 - Zer dokumentu edo datuei egiten dien aurka zehaztu.
- Informazioa kontsultatzearen aurka egiteko arrazoiak adierazi eta haien justifikazioa.

Eskatzaileak baliozko oposizio arrazoitua aurkezten badu, Administrazioak oposizio hori ebaluatuko du, eta erabakiko du ea egokia den beste administrazio batzuei dokumentuak eskatzen jarraitzea. Oposizioa ezesten bada, dirulaguntza izapidetzeko behar den informazioa eskatuko da.

Dirulaguntzen eskaerak sinatzeak berekin dakar dirulaguntzaren oinarrietako baldintzak onartzea, eta dokumentuak kontsultatzearen aurka egiteko eskubidea aitortzen du, bai eta oposizio hori dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epearen barruan modu arrazoituan aurkezteko betebeharra ere.

Arestian adierazitakoa gardentasunaren eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak arautuko du, bereziki, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak eta (EB) 2016/679 Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak.

18. Datuen babesa

Interesdunak ematen dituen datuak deialdi honetatik eratorzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.



Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein mementotan atzera bota ahal izango du lehen adierazitako onarpena.

Halaber, erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean.

19. Araudi Aplikagarria

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako Dirulaguntzen Lege Orokorrak, 38/2003, legea garatzen duen Erregelamenduak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

-